



BALIO PROPOSAMENA

Gure bidaiak, gazteek haien bidaiak antolatzeko modua errazteko bidai enpresa bat da. Guk beste enpresen aldera, bezeroei hainbat gauza eskaini nahi dizkiegu.

Alde batetik, bidaiak osatzeko garraioa beharko dugu, beraz, garraioaren prezioaren %10-a gure enpresak ordainduko du. %10 hori, publizitatearen bidez lortuko dugu, hau da, Alsa, autobus enpresari, eta, Iberia, hegazkin enpresari esker. Haien guri %10eko deskontua egingo digute eta guk aldiz haiei, publizitatea egingo diegu eta beraien zerbitzuak erabiliko ditugu.

Beste alde batetik, gure ibilbideak erosoagoak izateko, eskuragarri edukiko dute behar izan batzuk. Adibidez, leporako koxin bat, nezaser bat, edalontzi bat... Oparituko duguna alde batera utzita, bestetik bereiziko gaituena, pertsonalizazioa ere izango da. Hau da, bezeroek aktibitate batzuen artean nahi dutena aukeratu ahal izango dute, etab..



Gure balioa, kuantitatiboa nahiz kualitatiboa izango da, aldetik prezioa dago, hau da, gure enpresa %10eko deskontua eskainiko duenez, balioa, kuantitatiboa izango da. Beste alde batetik, bezeroek bere bidaia nolakoa den aukeratzeko aukera izango dutenez, balioa, kualitatiboa da. Gure bezeroak ikasle gazteak direla kontuan hartuta, prezioa normala izango da, ez oso garestia ezta oso merkea ere, gure bezeroek onar diezaiaketen prezio bat da. Gazte bakoitzak ordaindu behar izango duen prezioa 300€ izango dira, gutxigorabehera, helmugaren arabera.